

PRENTSA-OHARRA

KONFEKOOPEN Batzar Nagusia 2018ko maiatzaren 25ean:

- **2017an, Kooperatibek hobera egin dute esparru ekonomikoan**
- **2017an, 50 kooperatiba gehiago daude erroldatuta Euskadin. Guztira 1.160 dira federatutako kooperatibak**
- **Bazkide kopurua guztira 1.206.310koa da, eta horietatik 1.098.478 bazkide kontsumitzaileak dira**
- **Guztira %2,19 handitu da langile kopurua. Lan-bazkideak 1.025 gehiago dira, eta besteren konturako langileak, 146 gehiago**
- **Elkar-Lan Koop.E.k 138 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu du, 464 lanpostu berritik gora sortuz**
- **Kooperatiba industrialen fakturazioaren %65tik gora nazioarteko salmentak izan dira**
- **Kooperatibek 279 milioi langile baino gehiago dituzte mundu osoan, eta horietako 54.500 baino gehiago Euskadin daude**

KONFEKOOP - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Euskadiko sektore kooperatibo guztietako (Lan Elkartua, Irakaskuntza, Nekazaritzako Elikagaiak, Kontsumoa, Garraiolariak eta Kreditua) kooperatiben federazioen elkargunea da. Federazio horietan Euskadiko Kooperatiba guztietako bazkideen, eragiketa-bolumenaren eta enpleguaren %90 eta %95 artean biltzen da.

Kooperatibismoa garapen iraunkorraren motorra da...

... eta aberastasuna sortzen laguntzen du,

1.160 kooperatiba dira KONFEKOOPEN bazkide, eta Euskadiko BPGaren %7 baino gehiago sortzen dute.

eta haren bazkide eta langileen giza garapena eta garapen profesionala bultzatzen du...

Kooperatibek kalitatezko enplegua sortzen dute, egonkorra eta segurua, bere langile guztiak (bazkideak eta bazkide ez direnak) enpresaren helburuarekin konprometituz.

eta ehun sozial eta solidarioa sustatzen du EAEn...

Kooperatibismoak bultzatzen duen pertsonen, kooperatiben eta administrazioen arteko kooperazioak gure komunitatearen garapenaren akuilu da.

eta gure zentroetako tokiko komunitateen garapen soziala indartzen du.

Kooperatibismoak ingurune naturala errespetatzen du, tokiko komunitateentzako berebiziko garrantzia daukaten zerbitzuak eskaintzen ditu eta belaunaldiz belaunaldi iraungo duen ondare kolektiboa eta giza kapitala sortzen du.

Hona hemen **2017ko abenduaren 31n bildutako daturik esanguratsuenak:**

❖	Federatutako kooperatibak 1.160	dira
➤	Kooperatiba motaren arabera:	
▪	Lan Elkarateak	997
▪	Irakaskuntza	85
▪	Nekazaritza	61
▪	Kontsumoa	10
▪	Garraiolariak	6
▪	Kreditua	1
▪	Etxebizitza	
▪	Beste batzuk.....	
➤	Probintziaren arabera:	
▪	Araba	176
▪	Bizkaia	495
▪	Gipuzkoa	489
➤	Ekoizpen-sektorearen arabera:	
▪	Lehen sektorea edo zuzeneko produktua	14
▪	Bigarren sektorea edo eraldaketa	481
▪	Hirugarren sektorea edo zerbitzuak	665
❖	Bazkideak guztira	1.206.310
➤	Nekazariak	9.363
➤	Lan Elkarateetakoak	34.837
➤	Kontsumokoak.....	1.098.478
➤	Kreditukoak	10.146
➤	Gurasoak.....	53.456
❖	Langileak guztira.....	54.667
▪	Lan-bazkideak.....	34.837
▪	Bazkide ez diren langileak	19.830
▪	Gizonak.....	26.518
▪	Emakumeak.....	28.149
❖	Fakturazioa	9.669 ₁ €
❖	Nazioartekotzea	4.856 ₁ €

* Haien sektoreko Federazioen barruan dauden kooperatiben datuak besterik ez dira jaso

* EAEko kooperatiben datuak dira

Ekitaldi honetan izan ditugun zailtasunak gorabehera, gure enpresa eta gizarte-arloko ereduak sendotzea lortu dugu, datu hauek agerian uzten duten moduan:

- Hazkunde garbia: 50 Kooperatiba
- Lanpostu kopurua handitu da: 1.171 enplegu sortu dira.
- 1.025 lan-bazkide gehiago daude
- %2,14 hazi da irakaskuntzako kooperatibetako ikasle kopurua; guztira 74.405 ikasle dira.
- EAEko enpleguaren %6 inguru

Kooperatiben Mugimendua Euskadiren etorkizunarekin konprometituta dago:

- Deslokalizatorako joerarik ez duelako: tokiko sustrai sakonak ditu, mundu osora zabaltzen diren adarrekin.
- Tokiko komunitateen garapenarekin konpromiso irmoa daukalako.
- Haien jardueren kokagune diren tokiko komunitateetan giza kapital garrantzitsua sortzen laguntzen dutelako.
- Belaunaldiz belaunaldi komunitatean iraungo duen ondare kolektibo bat sortzen laguntzen dutelako.
- Haien bizi-itzaropena kapital-enpresena baino handiagoa delako. Kooperatiba sortu berriak (azken bost urteetan) aparte utzita, 20 urtetik gorakoa da federatutako kooperatiben %40 baino gehiago.

Euskadiko enpleguaren arloan kooperatiba industrialen nazioartekotze maila altuak ere izan du zeresanik. Kooperatiba horien fakturazio osoaren (9.669 milioi euroen) %50 nazioarteko salmenten ondorioz etorri da, 4.856 milioi euro hain zuzen ere.

Kooperatibak sustatzea helburu duen Elkar-Lan Koop.E.k 138 Kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu du. Kopuru horri esker, Euskadi da urtean kooperatiba gehien sortzen dituen Autonomia Erkidegoa.

Azkenik, Kooperatiben MerkaERKIDE plataforma komertziala nabarmendu behar dugu. Edozein erakunderen eskaerei erantzuteko produktu eta zerbitzuen sorta zabala eskaintzen du, eta pixkanaka indartzen ari da.

ROSA LAVÍN
KONFEKOOPEKO PRESIDENTEA
EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA